



Alkate Jn./And.:

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELeK osatzen duten Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak (GZEO), 2019ko abenduaren 2ko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren azken ebaluazio-prozesuari ekitea erabaki du.

Planaren ebaluazioa GZEOren ordezkaturata dauden erakunde guztiek partekatutako erantzukizuna izateaz gain, eginkizun garrantzitsua osatzen du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema planifikatzera eta etengabe hobetzera bideratuta.

Eusko Jaurlaritzak jarduera hori dinamizatuko du, koordinazioaren eremuan dituen eskumenak baliatuz eta, horretarako, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eta EDE Fundazioak osatutako talde tekniko baten laguntza izango du.

Ebaluazio-prozesu horren barruan, EUDELeK eta Foru Aldundiek, lurralde historiko bakoitzean eraturako gizarte-zerbitzuetako erakundearteko mahaietatik, planaren eta maparen ebaluazioa egingo dute lurralde bakoitzean eta hori guzti hori ebaluazio orokorrean sartuko da.

Une honetan, lehenengo pausoa eman nahi da, 2018ko amaieran bi datu-mota biltzeko:

- a) Lekuak edo, hala badagokio, erabiltzaileak eta, hala dagokionean, arreta-orduak;
- b) Gastu korrante publikoa, koordainketa kenduta, horrelakorik dagoen zerbitzuetan.

Horretarako, gizarte-zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde bakoitzean (udala bera edo beste batzuekin batera), laguntza-talde teknikoarekiko solaskidea nor izango den jakin beharko da. Horretarako, **2019ko abenduaren 18a baino lehen**, mezu elektronikoa bat bidali beharko da **[documentacion@siis.net](mailto:documentacion@siis.net)** helbidera, gaian "**Maparen ebaluazioa**" adieraziz, honako datu hauekin:

- herri-erakundearen izena;
- ebaluazioa egiteko harremanetarako pertsonaren izen-abizenak;
- pertsona horrekin harremanetan jartzeko telefono eta helbide elektronikoa.

Datu-bilketa errazagoa izan dadin, ahal den neurrian behintzat, komenigarria da harremanetarako pertsona horrek datuak eskuraerazak izatea, ahalik eta ondoren ezagutzea eta "erabiltzaileak", "lekuak", "arreta-orduak", "estaldurak", "gastu korrante publikoa" eta "koordainketa" moduko kontzeptu horiek erakunde hauen estatistiketan erabiltzen diren moduan erabiltzea: Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzan, Erakundearen eta Zentroak (GZEZE / ESSEC) - Gizarte Zerbitzuetan egindako Gastu Publikoa (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika-erakundearen urteko eragiketa).

Harremanetarako pertsona horren datuak jaso ondoren, informazioa biltzeko ardura duten teknikariek harekin jarriko dira harremanetan, aurreikusitako prozesua azaltzeko eta egin beharrekoaren nondik norakoak erabakitzeko asmoz.

Bilbon, 2019ko abenduaren 12an.